



3 UDALBATZARRA

5. edukiontzia ezartzeko batzordea sortuko da

Astearteko udalbatzarrak luzea izan zen. Bertan azal honetara ekarritako gaia eztabaidatzeaz gain, bestelakoak ere izan ziren gai ordenean. Hauetako bat 5. edukiontzia martxan jaritzeko PSE-EEk eta EAJk aurkeztutako mozioak. Azken hauek batzorde berezi baten eraketa eskatu zuten eta onartua izan zen.

4-5 ELKARRIZKETA

Juan Mari Arteaga, pilotari profesionala 80-90 hamarkadetan

Okendoko frontoian hasi zen pilotan jokatzen Juan Mari Arteaga gaztetxo zelarik eta 80-90 hamarkadetako pilotari onenekin jokatu zuen gero, besteak beste Retegi II, Ladutxe, Titin, Beloki, Errasti, Errandonea, Arretxe edota Zezeagarekin. Garai batean urtean 80 partidutik gora jokatzen zituen. Afizionatuetan munduko txapeldundorea izan zen eta zilarrezko domina ekarri zuen Mexikotik 1982an. Orain taxi gidaria da Donostian.



EAJ, PSE-EE eta PP-k udalak erakunde desberdinetan dituen ordezkariak baliogabetzeko aurkeztu zuen mozioa aurrera ateratu zen astearteko ohiko udalbatzarrean. Ondorioz Bilduko Nerea Sanchez Sanmarkotik kendu eta PSE-EEko Lourdes Acevedo izango da aurrerantzean Lasarte-Oriako ordezkaria mankomunitatean. Udalbatzarrak oso jendetsua izan zen eta azken hilabetetan ospatutako den luzeena.

Lasarte-Oria Bizirik-ek deituta 18:00etan udalbatzara aurrera jende asko bildu zen EAJ, PSE-EE eta PPren jarrera salatzeko egindako elkarretaratzean. 18:30ean ohiko udalbatzarrari hasiera eman zion alkateak jendez betetako aretoan. Bertaratu ziren herritarren artean, politikagintzako aurpegi ezagunak ikusi ziren. PPko Ramon Gomez, Donostiako alkategaia izandakoa, PSE-EEko Denis Itxaso eta Susana Corcuera, Lasarte-Oria Bizirik-eko kideak, Mertxe Aizpurua Bilduko Usubilgo alkatea besteak beste.

Zalaparta

Plenoak eztabaidarako tarte luzea izango zuela iragar zitekeen, hala ere, ikusmina uste baino handiagoa izan zen aretora gerturatutako politikari eta herritar kopurua erreparatuz. Ohiko udalbatzara izanda, aurreikusitako gai ordena jarraitu zuen alkateak.



Jendetza bildu zen astearteko udalbatzarrean eta udal ordezkarien artean hitz gogorrak entzun ahal izan ziren.

Hirugarren eta eztabaidarako azken gaia izan zen PP, PSE-EE eta EAJk aurkeztutakoa eta honekin batera eztabaida eta alderdien arteko hitz gogorrak iritsi ziren. Aurkeztutako mozioaren arabera, udalak hainbat erakundetan dituen ordezkariak aldatzea eskatu zen.

Alderdiak mozio honen nondik-norakoak azaldu zituzten eta alkateak hitz gogorrak izan zituen batez ere EAJ eta PSE-EErentzat. Besteak beste, gogoratu zuen herriaren erraustegiaren aurka egindako manifestazio jendetsuenean izan zirela.

Jesus Zaballosek adierazi zuen bere alderdiak erraustegia Zubietan eraikitzearen kontra hainbat helegite aurkeztu dituela. EAJko Estitxu Alkorkak manifestazioan

“Zubietan ez” leloaren atzean kokatu zirela argitu zuen, “erraustetari beldurra kendu behar zaio. Ez da esaten den bezain kaltegarria eta zaborren zatitza irtenbide bakarra bihurtu da”. Baieztapenak txaloak eta kontrako hitzak eragin zituen aretoan eta alkateak ixiltasuna eskatu behar izan zuen.

Bozkaketan aurrera

Bozkatzeko garaian aipatu behar da Marisa Zubiri, PSEtik ateratako zinegotzia, ez zela udalbatzarrean egon. Hala ere mozioa aurrera ateratu zen. Bildu eta Plataformako bi kideek kontra bozkatu zuten.

Gauzak honela, Bilduko Nerea Sanchezek ordezkari izan galdutako Sanmarko mankomunitatean eta Lourdes Acevedok, PSE-EE, hartzen du bere lekua. Alkateak hitza hartu eta berarentzat egun tristea zela adierazi zuen. “Ez nuen uste

EAJko kideek PP eta PSEren jokoan sartuko zirenik gai honetan, pentsatzen dut Sabin Etxeatik ezarritako erabakia dela”. Boris Nogalesek “hala balitz, Bildu ez litzateke alkate izan egongo” erantzun zuen.

Zaballosen ustetan “orain bai herritarren gehiengoak nahi duena ordezkari egongo da Sanmarko”. Nerea Sanchezek mankomunitatean egindako lana oso gustura egin duela esan zuen jaio berria den alaba besoetan zeukala. Bere agur hitzek aretoan txalo zaparrada luzea eragin zuten. Herritar askok hitz egin zuten, lehena Ricardo Ortega. Honek erabakia salatu zuen PSE-EE orain urte batzuk azaltzen zuten jarrera gogoratuz. Lasarte-Oria Bizirik! eta Alarrekoekek ere idatziz irakurri zituzten erabakiaren kontra. Gaiaren inguruan herritarren iritzia jasotzea eskatu zuten.

Xaralphoto

NAN argazkiak momentuan 3,50 eurotan

Mikro-saioa: estudioko argazkia momentuan eta 5 eurogatik!

Zure neurrira egindako ezkontza saioak

Kale Nagusia, 44 Lasarte-Oria Tlf: 943248755

www.xaralphoto.com

Neure kabuz



Asier Odriozola
San Pedroak

Adinez pixka bat jantzita egoteak ba omen ditu abantailak eta kargak neurri berean. Ikuspegi baikorrekoa naiz txikitandik eta alperrik da, horrek ez du sendabiderik. Horregatik, berrogeitik gora urte edukitzearen alde onari-edo heldu eta esan nahiko nuke San Pedro jai asko gozatu dudala urteetan barrena.

Koadrilako bluxa berezi, itsusi baina maitea jantzita hor ibili izan naiz beste hamaika lagunekin batera orain dantza egin, gero garagardoa lapurtu plastikozko basoari eta geroago neskaren bati begiratu. Gogoan ditut Javiren eta Piruren Txepetx-Kabi mitikoaren garaiak. Orduan denbora banaketa zorrotza egiten genuen: erdia tabernetan beste erdia kalean hor nonbait.

Ez dira gutxi izango gau-pasa egin eta goizeko zazpirak alde horretan soka-muturrean ateratakoak, Xabier Etxezarreta denen buru, zezen txahalduek Geltoki kalea txukuntzen zuten garaian.

Eta gazteago izateak berarekin duen lausoagatik edo agian Txirritak esan zuen bezela, gaztetako nire txoramenagatik, munduko jairik onenak iruditzen zitzaizkidan herrikoak, San Ferminek izen eta sona bereak zituzten baina, alde alde, nahiago Lasarte-Oriakoak.

Joandako garaiak onenak izaten direla dioen esamoldeari arrazoi puntu bat eman zioten ordea ondoko urteek.

Jaiak indarra galdu zuten, herrikoitasuna galdu zuten, jendez hustu ziren eta tristura puntu bat zabaldu zuten urrezko garaia ezagutu genuenon artean.

Eta hainbeste hitz-jira eta buelta ondoren...gauza bakar bat esan nahi dut: aurtengo Sanpedroak mundialak izan direla, berriz ere zentroa izan delako herriak Okendo plazan eta berriz ere kalera egin dugulako festara.

Zaharrak berri dio hitz-jokoak eta honako honetan, pozten naiz hala izan delako.

Oraindik ere larunbateko juergari buelta eman nahian nabil, hori bai.

Zorion agurrak



Helene
Zorionak printzeza eta hiru muxu familiaren partetik.



Oier
Zorionak!! Zure 5. urtebetetzean. Muxu handi bat, aitaxo, amatxo eta Noraren partetik!



Haritz
Muxu potolo potoloa zure familia guztiaren partez! Ondo ospatu!



Goreti
Zorionak preziosa zure urtebetetzean. Lau muxu goxo goxo familia guztiaren partetik.



Xabier eta Gaizka
Zorionak muxu potolo bat familia guztiaren partetik.



Unax eta Garazi
6 muxu potolo aitaxo eta amatxoren partetik!!!

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Garaje marra bat alokatzen da, Hipodromo etorbidean. 680 674 577
- Garaje itxia alokatzen da Iñigo de Loyola kalean. 686 674 552
- Pisu ia berria alokatzen da: 2 logela eta 2 bainurekin, altzari guztiak... Beharrezko abala edo aseguru. 650016900
- Bi logelako etxea alokatzen da Iñigo de Loyola kalean. 650 euro. 627 995 760
- Apartamentua alokatzen dut Lasarte-Oriako erdialdean. 54 metro karratu ditu eta logela bat du. Harremanetarako, 678 582 706.

Salerosketak

- Haurrentzako janaria prestatzeko Babycook Beaba salgai, erabili gabea. Tfnoa, 661 396 299.

Lan-eskaintzak

- Lasarte-Oriako ileapaindegirako laguntzaile behar da asteburuetarako. 637 961 824.
- Bi ume zaintzeko neska euskalduna behar da irailerako. Orduetgia 17:00etatik 20:15era izango da. Harremanetarako, 685 751 268

Lan-eskariak

- 16 urteko neska prest dago udan umeak zaintzeko. Eskarmentu handikoa eta konfiantza guttikoa. Harremanetarako, 666 261 030 edo 606 803 366.
- Klase partikularrik emango nituzke. Lehen Hezkuntza eta DBH mailak. Udan, zein ikasturtean zehar. Klaseak goizez edo arratsaldean daitezke. Harremanetarako, 600 798 353.
- Haurrak, pertsona adinua edo garbiketaria lanak egiteko emakumea eskaintzen da. Interna

edo orduka lan egiteko. Harremanetarako, 690 127 821.

- Emakumea eskaintzen da adinduak zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketaria lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. Harremanetarako, 608 131 170.
- Lan bila nabil, aurretik pintore, lorazain, ontziak garbitzen eta baserri batean aritu naiz. 638 273 950
- Geriatria ikasitako neska, adineko pertsonak zainduko lituzke. Beste motatako lanak ere egin-gogor lituzke: garbiketaria...663552573 (Dionisia)
- Magisteritza ikasten ari den neska euskaldun bat, haurrak zaintzeko edo ikasketetan laguntzeko prest dago. 649 207 669 Garazi
- 45 urteko emakumea lana egingo luke: umeak zaintzen, etxeak garbitzen...943 365 149.
- Emakumea eskaintzen da orduka edo interna moduan lan egiteko. 608 131 170.
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketaria edo helduak zaintzeko. Esperientzia dauka. Harremanetarako, 669 931 026.
- Lan bila nabil, edozertan egingo nuke lan, Reina Cruz 686820145
- Emakumea eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketaria edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauka. Harremanetarako, 619 803 199.

Bestelakoak

- Mobilhome bat alokatzen da uztaila eta irailen, Landetako Leon lakuan. Harremanetarako, 660 057 667.
- Pisua alokatu nahiko nuke, Lasarte-Oria erdian. Harremanetarako, 602 187 900, M.Afzal.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Endika Montero Avila, uztailaren 3an.
- Saioa Benavides Rubio, ekainaren 22an.
- Aderi Duarte Martin, ekainaren 21an.
- Oihane Portuburu Martin, ekainaren 18an.
- Adriel Antonio Sarmiento Cedeño, ekainaren 16an.



Heriotzak

- Josefa Alvarez Medina, uztailaren 6an, 83 urte zituela.
- Isabel Sabariego Borrego, uztailaren 6an, 83 urte zituela.
- Jose Damian Tovar Cerro, uztailaren Sean, 69 urte zituela.
- Eugenio Garcia Garcia, uztailaren 3an, 77 urte zituela.
- Ignacio Iruretagoiena Mendizabal, uztailaren 3an, 84 urte zituela.
- Aniano Carranza Fonbellida, ekainaren 21ean, 93 urte



Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 13 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 14 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Igandea, 15 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Astelehena, 16 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Astearta, 17 Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Asteazkena, 18 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 19 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAIA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

POLITIKA

5. edukiontzia gertuago

Udalbatzarrean azken mozioak zalaparta gehien sortu arren, eguneko bigarren puntua zen 5. edukiontzia martxan jartzeko batzorde baten eraketa onartu zen

Ohiko udalbatzarra izaki, aurreikusitako gai ordena jarraitu zuen Pablo Barrio alkateak asteartean. Horrela lehen puntua 2013. urteko jai eguna erabakitzea izan zen lehen bozketa gaia.

Honen arabera datorren urtean udal egutegian San Pedro eguna, ekainak 29, jai egun ofizialeko bat izatea adostu zuten alderdiek aho batez.

Ondorengo gaia PSE-EEk 5. edukiontzia martxan jartzeari buruz aurkeztutako mozioa izan zen. EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen gaiaren inguruan. Honek zaborraren inguruko eztabaidaren hasiera eragin zuen alderdi ezberdinetako udal ordezkariei artean.

5. edukiontzia

Zaballosek aurkeztutako mozioan honakoak zehaztea eskatzen zen: lehenik alkateari eskatzen zaio Aldundia eta mankomunitatearekin hau martxan jartzeko hitzarmena adostea; bigarrenik informazio eta kontzientziazio plan bat osatu eta bi hilabetetan prest izatea eta azkenik, 5. edukiontzia martxan jartzeko epeak ezartzea eskatzen zen hiru hilabetetan lehen esperientziak martxan jartzeko.

Jesus Zaballosek gogoratu nahi izan zuen, iaz urriko udalbatzarrean onartu zela 5. edukiontzia alderdi



Jesus Zaballok eta Pablo Barrio alkatea udalbatzarreko une batean.

mozioa "Bilduk oraindik ezer ez du egin". "Udalbatzarrean alderdi gehien baiezko bozkarekin adostu zen 5. edukiontzia martxan jartzeko esperientzia pilotua aurrera eramatea eta oraindik ez da ezer egin Bilduk ez duelako nahi, ez dute gehiengoaren ahotsa entzun nahi".

Alderdi sozialistako bozeramaleak alkatea Urretxuko udalean jarraitutako biderei ekitea animatu zuen "Urretxun Bilduko alkateak, gairontzeko alderdien bozkari esker aurrera ateratako erabakia onartu eta martxan jarri du 5. edukiontzia. Eredu hau jarraitu beharko luke Lasarte-Oriak. Alderdikerien gaitetik beharko lukete udalbatza-

rean hartutako erabakiek".

EAJko Boris Nogalesek gai honen inguruko beste mozio bat aurkeztu zuen. Honen arabera batzorde berezi bat sortzea proposatu zuen zinegotziak 5. edukiontzia martxan nola jarri aztertu eta behar bezala kudeatzeko. Azken mozio hau bozkatu eta onartua izan zen.

Lehen txaloak

Plataformak bere abstentzioaren arrazoiak eman zituen, "batzorde berriak ez du zaborren kudeaketaren arazoa konpontzen".

Bildutik, Gorka Lizarragak EAJren mozioa atentzioa desbideratzeko estratategia bat zela esan zuen. "Errauskailu-

ren alde egin nahi duzue zuek zuzendutako batzorde berri honen babesean". "Azkenean errauskailua beharrezkoa dela esango duzue eta ez da egia. Atez atekoa da bidea eta adibideak oso gertu ditugu. 5. edukiontzia Donostian jarri da eta ez da emaitza onik lortu. Ez duzue ikusi nahi alternatiba badela".

Honen hitzek bertaratutako lehen txaloak eragin zituzten.

Nerea Sanchezek hitza hartu eta azaldu zuen nola 2009an PSE-EE udal gobernuan zegoela, atez-atekoa martxan jartzeko proiektu pilotua gauzatzea udalbatzarrean onartu zen "eta 2011 arte ez zenuten ezer egin".

Janari banaketa

Zaborren kudeaketaren gaia aterata, hirugarren eta azken mozioaren eztabaida hasi zen. Alderdiak ordezkariei leporatze eta hitz gogorak entzun ziren herritarren aldeko eta kontrako erantzunekin. Herritarren hitzak entzuteko garaian, zaborrena ez zen beste gai bat azaleratu zen.

Berpiztu elkarte langile batek Janari bankua delako zerbitzuaren etetearen arrazoiak eskatu zizkion Gizarte Zerbitzuetako buru den Gorka Lizarragari.

Udalak elkarte honekin zuen hitzarmena ez berritzea erabaki du, "besteak beste kadukatutako elikagaiak banatzea udalaren aldetik onartezina zela erabaki genuen batzordean". Gainera udaleko gizarte zerbitzuek janari hau jasotzen zuten 20 familien egoera aztertuta, bestelako laguntzekin jana edukitzeko moduan direla ondorioztatu dela argitu zuen Lizarragak.

Berpiztuk kalean banaketarekin jarraitzeko asmoa zuela azalduta, zinegotziak honetan eskuduntza duten erakundeei galdetuta banaketa hori irregularra dela esan zuen eta udalak ez duela onartuko. Lourdes Acevedo eta Gorkaren arteko hika mika sortu zuen gaiak. Lehenak, zerbitzua kenduta hainbat familia babesik gabe geratu direla leporatu zion zinegotziari.

Etorkinentzat euskara ikastaroa

Uztailaren 12tik Lasarte-Orian etorkinei zuzendutako euskara ikasteko egitasmo berria martxan da. Ekimena ahozko komunikazioan oinarrituta dago eta hasieratik eguneroko bizitzan erabiltzen diren hitzak eta esamoldeak ikasi eta erabiliko dira.

Taldea aurtun ostegunetan bilduko da 15:30ean, Liburutegi zaharrean, Erribera kalea, 2, izkina Ola kalea. Klaseak dohain izango dira eta aurretik ez da beharrezkoa izango izena ematea. Ez da ikastaro mugatua izango. Talde iraunkorra sortu nahi da eta urte osoan parte-hartzaile berriak sartzea posible izango da.

Euskarazko komunikazioa helburua izan arren, elkarbi-



zita eta kulturen arteko eza-gutza bultzatu nahi da. Horregatik parte hartzeko interesa duten euskaldunak ongi etorriak izango dira, bai asteroko bileretan baita hilean behin antolatzeko asmoa duten kantaldietan edo bestelako kultur ekintzetan.

Antolatzaileak, beste herri batzuetan etorkinentzako euskara taldeak dinamizatzen dituen Banaiz Bagara elkarteak da herriko Ttakun kultur elkartearekin batera. Informazio gehiago eskuratzeko 645 733 818 zenbakira edo Ttakunera dei daiteke.

MUSIKA

Parapetasonik jaialdia larunbatean

Musika jaialdi honen bigarren edizioa izango da biharko, 2010ean izan zen lehenengoa. Honetan kontzertuak eskainiko dituzte Hilotz, Two Mules and the rainbow, BeHaxxeRoja, Bloody Brotherhood, Bar Remigio, Black Absinthe, Tamerlayn eta Blaka taldeek.

Kontzertuak doan dira eta Parapetason arratsaldeko 17:00etan hasiko dira. Txosnetan garagardoa eta kalimotxoa 1 euro batean izango da salgai antolatzaileek jakitera eman dutenez.

TAILERRAK

Ehun apainketa Isla plazan

Udako haur ikastaroen baitan bigarren saioa egingo da biharkoan 10:00etatik 13:00etara. Ehun apainketaren inguruko tailerra izango da burutuko dena. Hau Isla plazan egingo da eta antolatzaileek jakinarazi dutenez, ehun apainketarako kamiseta, txaleko, alkandora edota txapelak eraman behar dituzte parte hartuko duten gazteek.

Hurrengo tailerrak uztailaren 21ean malabare ikastaroa izango da Andatza plazan eta azkena 28an Elizatze plazan egingo den birziklatze ikastaroa. Azken honetarako ere haurrek etxetik plastikozko botilak, papera etab. eraman beharko dituzte.

ZALDI LASTERKETAK.



Zaldi denboraldiari hasiera emango zaio astelehenean

Karmengo Amaren egunean, hurrengo astelehenean, izango dira aurtengo zaldi denboraldiko lehenengo lasterketak. Izan ere, 2012. denboraldiak berrikuntza handia dakar, astelehenean izango dira hainbat jardunaldi.

Aurten hamahiru saio izango dira guztira Hipodromoan. Horietatik bost, uztailak 16, 23 eta 30, abuztuak 6 eta 27 asteko lehenengo egunean izango dira Frantziako Equidia telebista kanalak bota ahal izateko.

Data garrantzitsuak

Aldaketa honek ordea, ez du denboraldiko egun garrantzitsuetan eragingo.

Kutxa Saria abuztuaren 12an igandean izango da, Eusko Jaurlearitza saria abuztuaren 19an eta Urrezko kopa ohi den bezala, abuztuaren 15ean asteazkena lehiatuko da.

Abuztuak 23 eta 30 eta irailak 6a, ostegunetan ere jardunaldia izango da eta

lehenengoan gainera, Nazioarteko Kriteriuma izango da.

Eta denboraldiari amaiera emateko, irailaren 9an, igandea Donostiako sari Nagusia egongo da jokoan.

Nazioarteko saria

Honetaz gain, aurten ere Urrezko Kopa Defi du Galop nazioarteko txapelketaren barruan egongo dela adierazi dute antolatzaileek.

Ondorioz, Europako zaldirik onenak izango dira Donostian Amabirjinaren egunean eta maila handiko zaldi lasterka ikusiko da.

Sarrerak

Gauzak honela, zaldi lasterketak gustuko dituztenek aukera zabala izango dute hiru hilabete hauetan.

Sarrera normala 7 eurotako izango da uztaila eta irailan, abuztuaren berriz, 10 euro ordaindu beharko dira.

Jubilatuek eta 14-18 urte bitarteko gazteek 3,5 eurota dituzte sarrerak eta abuztuaren 5 eurotara.

ATLETISMOA.

LOKEko kadeteak bikain Euskadiko txapelketan

Lau kadete Espainiako txapelketan izan ziren

Denboraldia amaitzear da, baina LOKEko gazteak fin ibili dira azken lehiaketetan. Ekainaren 23an, kadete mailako Euskadiko txapelketan izan ziren lehian eta atleta gazteek urrezko bost domina eskuratu zituzten. Hilabete hasieran Espainiako txapelketan izan ziren eta Rodriguez eta Galardi finalerara iritsi ziren.



Itoitz Rodriguez Euskadiko txapelidun bikoitza LOKEko entrenamendu batean.

Nerea EIZAGIRRE

Euskadiko txapelketan izan ziren LOKEko kadete gazteak ekainaren 23an. Goikoetxea eta Andresek zuzentzen dituzten neska mutilak lan paregabea egin zuten lehiaketan eta hainbat domina ekarri zituzten herrira, 6 urrezko domina, 5 banakako probetan eta bat erreleban, lau zilarrezko domina eta hiru brontzezko.

Itoitz Rodriguez bi probatan, 300 m. eta luzera jauzian izan zen garaile.

Maria Eugi ere 300 metroko lasterketan izan zen azkarrena. Idoia Olasagasti lehenengo izan zen 300 metroko hesi-lasterketan eta hirugarren postuan amaitu zuen luzera jauziko proba.

Maider Rekondok berriz, pisu jaurtiketako proban urrezko domina eta diskojaurtiketa proban zilarrezkoa lortu zituen.

Ane Galardik ere bi domina eskuratu zituen, biak zilarrezkoak. Hauek luzera jauzi eta jauzi hirukoitzeko probatan lortuak.

Eneritz Bustok, ordea, zilarrezko postuan amaitu zuen altuera proba eta hirugarren izan zen 110 m. hesi-lasterketan.

Izar Agirretxek hirugarren amaitu zuen xabalina-jaurtiketa proba eta mailu-jaurtiketa bosgarren izan zen.

Banakako proba hauetaz gain, nesken 4x300 erreleban ere parte hartu zuen LOKE-k. Maria Eugi, Eneritz Busto, Idoia Olasagasti eta Ane Galardik osatutako taldea

ederki aritu zen lasterka eta garaipena lortu zuen.

Espainiako txapelketa

Bestalde, kadete mailako Espainiako txapelketan izan ziren Itoitz Rodriguez, Maria Eugi, Eneritz Busto eta Ane Galardi ekainaren 30 eta uztailaren 1ean, Castellón-n.

Itoitz 300 metroko lasterketako finalean izan zen eta 8. postua eskuratu zuen. Anek 5. postua lortu zuen luzera jauzian. Maria eta Eneritz kanporaketetan kaleratuak izan ziren.

Euskadiko txapelketa

Honetaz gain, asteburu honetan maila absolutuko Euskadiko txapelketa izango da Durangon. Bertan Jose Ramon Latorre eta Iñigo Sevillano herritarrek izango dira lehian.

KIROL AGENDA.-

PALA

Astearte 17

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrego pilotalekua

18:30ean, Pagola eta Jesus-Santi eta Bernaitz

19:15ean, Alain eta Txema-Xenki eta Mundu

20:00etan, Xabi eta Beñat-Potzu eta Gari

Asteazkena 18

SANTA ANA TXAPELKETA

Loidi-Barrego pilotalekua

18:30ean, Galdos eta Izeta-Jonpe eta Iker

19:15ean, Goiko eta Azkona-Iñaki eta Joserra

20:00etan, Begiristain anaiak-Imanol eta Ander

IGERIKETA

Ostirala 13

Mairena del Aljarafe, Sevilla, 09:30ean eta 17:30ean

Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa igerilari juniorra bere mailako Espainiako txapelketan izango da lehiatzen.

Larunbata 14

Mairena del Aljarafe, 09:30ean eta 17:30ean

Buruntzaldea IKT-ko Itsaso Tolosa igerilari juniorra Espainiako txapelketan izango da lehiatzen.

Bilbo, 13:00etan

Buruntzaldea IKT-ko hainbat igerilari Bilboko 73. Itsasbidea Igeriz proban parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Ostirala 13

Beasain, 23:00tan

Herriko hainbat korrikalarik III. Goierriko Bi Haundiak mendi proban parte hartuko dute.

Larunbata 14

Durango, 16:30tik aurrera

Herriko atletak absolutu mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 15

Durango, 09:30tik aurrera

Herriko atletak absolutu mailako Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Asteasu, 10:30ean

Herriko hainbat korrikalarik Santamañ XII. Kros igoeran parte hartuko dute.

TENISA

Osteguna 12-Igandea 15

Logroño

Patxi Fadrique herritarrek "II International Open La Rioja" tenis egokituko txapelketan parte hartuko du.

Ostirala 13

LASARTE-ORIAKO TXAPELKETA

Kirol gunean

18:00etan, Abel Hernandez-Alex/Oscar

Astelehena 16

LASARTE-ORIAKO TXAPELKETA

Kirol gunean

18:00etan, Aitor Badiola-Santi Lorenzo

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 14

Aizarnazabal, 10:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko kadeteek Uztarri Sari Nagusian izango dira.

Aztiria, Gabiria, 16:00ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubentek XXII. Aztiriri igoera proban parte hartuko dute.

Llaneras, Asturias, 16:30ean

Jon Ander Unanue herritarrek kadete mailako Espainiako txapelketako taldekako erlojupekoan parte hartuko du Euskal selekzioarekin.

Donostia, 21:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta

herriko kadeteek Amarako

Kriteriumean izango dira lehian.

Igandea 15

Biyak Bat, 08:00etan

Ostadar SKT-ko zikloturistek irteera dute Mandubiarra.

Amorebieta, 10:30ean

Bazpi txirrindularitza eskolako eta herriko jubentek Euskal Herria torneoko saioa dute.

Llaneras, Asturias, 12:30ean

Jon Ander Unanue herritarrek kadete mailako Espainiako txapelketako errepide proban parte hartuko du.

ZALDI LASTERKETA

Astelehena 16

Hipodromo, 16:30ean

Zaldi lasterketei hasiera emango zaio. Sari nagusia Coca-Cola saria izango da.

Agenda

Larunbata 14, Abend kafe-antzokia, 23:30ean



Blues eta funkaz gozatzeko gaua

"The Romantics" taldearen blues eta funka, kultur kalea zikloaren barruan. 2009an sortzen den formazioa da, bluesaren inguruan jarritako esperientziak bildu ondoren. Blues estandar-en adaptazioaz gain, euren sortutako gaiak eta 60-70 hamarkadako funk-aren fusioak eskaintzen dituzte. Doan

Lasarte-Oria

Musika

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 13, 20:30ean

Tutti Frutti Project taldearen jazz tertulaz antzezten auzoaren paregabea.

PARAPETOIA

Larunbata 14, 17:00etatik 02:00etara

Parapetasonik jaialdiaren II. edizioan hainbat talde izango dira, Hilotz, Bar Remigio eta Tamerlajn herritarrek barne.



Antzerkia

OKENDO PLAZA

Ostirala 13, 12:00etan

"Mr. Frack" haurrentzako kale antzerkia eskainiko du Xabier Larreak.

Ostirala 20, 22:00etan

"Carbon Club" kale antzerkia.

Osteguna 26, 22:00etan

Urtean zehar herrian gertatu denaren laburpena modu ironiko eta komikoan Santa Ana eguneko parodian.

Ikastaroa

ZUMABURU ALDEA

Larunbata 14, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako ehun apainketa tailerra egingo dute.

SASOETA ALDEA

Larunbata 21, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako malabareen tailerra egingo dute.

ELIZATZE PLAZA

Larunbata 28, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte.

Zinea

OKENDO PLAZA

Osteguna 19, 22:00etan

Udako Zine zikloaren barruan, "Extraterrestre" filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Gaztelaniaz.

Jaiak

ORIAKO AUZOA

Astelehena 16

Karmengo Amaren jaiak ospatuko dituzte oriatarrek.

ERDIALDEA

Osteguna 26, eguerdia

Santa Ana eguneko ospakizunak egingo dira. Brigitarren plazan luntxa eta Santa Ana karkaban dantza egingo da.

Azoka

OKENDO PLAZA

Igandea 22

Santa Ana egunaren ospakizunaren barruan, artisau azoka egingo da.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Uztaila osoan zehar

Estudio del Pintor marrazki eskolako ikasleen erakusketa.

Astigarraga

Zinea

FORU PLAZA

Igandea 15, 22:15ean

Zinema kalean zikloaren barruan, "Lagun Mina" film laburra eta "Intouchable" filma eskainiko dituzte.

Usurbil

Antzerkia

SUTEGI ETA POTXOENEA KULTUR-ETXEAK

Larunbata 14, egun osoa

Udako antzerki eguna ospatuko dute.

Herritarren txokoa

Eskutitza

Beste behin, murrizketak euskal hedabideentzat

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak %11 murriztu du herri ekimeneko euskal hedabideentzako diru-laguntzen partida. Batean Jaurlaritza, bestetan Aldundiak, bestetan udalek, apurka-apurka baina etengabe ari zaizkigu iristen murrizketak, diskurtso publikoan izaera estrategikoa aitortzen bazaigu ere.

Estrategikoa, bai, oinarritzko funtzioa betetzen dugulako euskararen normalizazio eta garapenean. 450.000 lagunengana iristen garelako. 600 lanpostu baino gehiagoren ardurak dugulako. 27 milioi euro inguruko jardura ekonomikoa eragiten dugulako.

Garai latzak dira guztiontzat, ondotox dakigu hori. Inoiz baino ahalgin handiagoak egiten ari gara euskal hedabideok garai berri horietara egokitzeke: diru iturri berriak bilatzeko, gure enpresa egiturak sendotuz, eta ditugun baliabideak optimizatuzko, elkarlanerako formula berriak garatuz. Ez gara kikildu krisiaren aurrean, eta soberan ez ditugun indarrak inbertitzen ari gara gauzak hobeto egiteko. Lan horren ondorioz, herri

ekimeneko euskal hedabideek martxoan aurkeztu genuen sektorearen diagnostikoa eta erronka komunak biltzen dituen dokumentua.

Inbertitzeko garaia

Herri ekimeneko euskarazko hedabideok hausnarketa mahai bateratua sortzeko eskaera egiteaz gain, eskaera zehatzak ere jarri ditugu erakunde mahai gainean: diru laguntza politika aldatu eta hitzarmen eredu ezar dezatela, sektorearen inbertsioak eta garapena susta ditzatela eta publikitate instituzionalaren banaketan hizkuntz irizpideak pisu handiagoa izan dezatela.

Horren berri eman diegu erakundeek (Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordetza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia, besteak beste), eta kasu guztietan sektoreak egindako bidea txalotu eta elkarlanerako prest agertu dira.

Baina praktika bestelakoa da: orain ezagutu dugun murrizketak ez digu garapen bide horieran sakontzen

laguntzen eta, are txarrago, gutako batzuen biziraupena bera kolokan jartzen du. Tokiko hedabideen kasuan, murrizketak %40tik gorakoak ere izatera iritsi dira.

Esan bezala, badakigu garai zailak direla gutzientzat. Baina benetan estrategikotzat jotzen diren beste sektoreetan bezalaxe, honetan ere erakundeek dirua inbertitu behar dute. Euskal hedabideok garai berrietara egokitu eta sektorea berregituratzeko egin beharreko inbertsio handiak ezin dira urtez urteko diru-laguntzen menpe egon (ez dugu jakiten zenbat eta noiz jasoko dugun). Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egin ahal izateko, laguntzak hitzarmen bidez jasotzea ezinbestekoa da.

Elkarlanerako deia

Horregatik, elkarlanerako deia luzatu nahi diegu berriz ere Eusko Jaurlaritzari, eta gainontzeko erakundeek. Danon ahotan dabilen krisi ekonomikoa ezin da aitzakia izan ezinean dabilen herri ekimeneko euskal hedabideen sektorea hiltzen uzteko.

Herri ekimeneko euskal hedabideok beharrezko jarraituko dugu, egoera berrietara egokitu eta kalitatezko euskarazko informazioa eskaintzeko. Erakundeek dei egin nahi diegu gure sektorearen aldeko apustu sendoa egin dezaten behingoz. Badakigu denbora latzak datozkigula, baina horregatik, uste dugu inoiz baino beharrezkoa dela orain arte egin eta konpartitu ez dugun gogoeta estrategikoa egitea, guztion artean erabaki dezagun nolako sektorea behar dugun, behin hau eginda beharrezko baliabideekin horni dezagun.

Eider Carton (Elhuyar),
Mikel Irizar (Tokikom),
Joanmari Larrarte (Berria Taldea)
eta Xabier Letona (Argia),
Herri Ekimeneko Euskal Hedabideen
izenean

Ailem Etleimidi Sahararra

“Sahara libre denean itzuliko naiz”

Familia osatu du Lasarte-Orian, baina ez du jaioterrira itzultzeko itxaropenik galdu

Ailem Etleimidi Sahara okupatuko Smara herrian jaio zen 1971n, 1976tik Tindufeko kanpamentuetan bizi izan zen bere guraso eta anai arrebeekin, Libian eta Algerian ikasi zuen, eta Rabuniko erietxe batean lan egin zuen 1992an Euskal Herrira etorri zen arte. Duela sei urte etorri zen Lasarte-Oriara. Gorka Lasa duela lau urte joan zen hara lehenengo aldiz Saharako maratoin parte hartzera eta ekainean berriro egon da bi astez, saharar umeen oporraldien ekimena eta han eskola bat eraikitzeko proiektua gainbegiratzen. Biekin elkartu gara hango berri izateko.

Jon ALTUNA IZA

Urte beteko eta hiru urteko bi alaba eta senarrarekin bizi da Ailem Etleimidi Lasarte-Orian. Biak dira sahararrak, eta hassania hizkuntza hitz egiten dute. Orain alabak jada hasi dira euskara eta gaztelera ezagutzen. Zaharrenak egiten du euskara apur bat, Landaberrin ikastolan ari baita. Ailem berak arabiarra, frantses apur bat eta gaztelera ere hitz egiten ditu. Euskara gerorako utzita dauka.

Ailem, zer zara Saharako enbaxadorea Lasarte-Orian?

Bai, hamar urte daramat Sahararik kanpo eta sei Lasarten.

Tindufeko kanpamentuetan jaio al zinen?

Ez lau urte nituenetik bizi izan nintzen han, 1976ko gerra garaitik. Kanpamentuetan ez zegoen eskolarik eta zazpi urterekin eskola garaian Libiara eraman gintuzten, ondoren, Libiarekin hartuemanak hoztu egin ziren eta Algerian bukatu genituen ikasketak, biologia, unibertsitatean. Gero borondatezko lana egin nuen Rabuniko erietxe batean, 2002an handik ateratu nintzen arte. Krisirik ez zenean urte osoan lana egiten nuen eta urtean behin kanpamentuetara joan.

Zein egoeratan daude han?

Gero eta okerrago. Gurea berreskuratzeko esperantzarik ez dugu galdu, baina zailtasun asko ikusten dira eta ez du aurrera egiten. Gainera, giza laguntzaren menpe egotea gogorra da. Beldur handia dago, laguntza hori eteten bada ezingo diotelako eutsi.

Erreferendum-a egingo ote da? Ba al duzu itxaropenik?

Badut esperantza, baina presio handia dago munduko herrialderik indartsuenen partetik. Argi daukagu ez dugula maro-

koarrak izan nahi eta ez garea algeriarrak ere. Ez dut irtenbide argirik ikusten, geldirik dago. Hangoek ez dute itxaropenik galtzen, baina urtez urte denbora gehiago ematen diote, MINURSOri, NBEk Saharan duen misioari, eta denbora gehiago pasatzen ari da.

Baldintza gogorrak dira kanpamentuetan, ezta?

Bai oso gogorrak. Munduko tokirik gogorrenetarikoa da, udan 50 gradura iristen dira, orain kanpamentuak hobeto antolatuta dira, baina lehen urteetan ura, garbiketa, osasun, hezkuntza... aldetik zailtasun handiagoak ziren. Egonkorra da egoera, baina ez da ona.

Azken bi urteotan ez zara joan hara, ama izan zarelako?

Bai, eta krisiarengatik ere bai. Kanpamentuetan ere hasi dira krisiarene itzala nabaritzen.

Kukukarekin Saharari buruzko antzerkia prestatzen aritu zara?

Gustatu zait, oso ondo konpondu naiz neskekin, aktoreekin, eta zuzendariarekin. Oso lan polita egin dute.

Non ikusten duzu zure geroa?

Beti daukat familiarengana itzultzeko gogoia, baina Sahara libre denean, bandera marokarra bada ez naiz itzuliko.

Sahara okupatuko zein tokitakoak zarete?

Smarakoak gara, baina ateratu ginenetik ez naiz sekula joan Soilik argazkietan ikusi dut. Hango senideek esaten didate joateko baina okupatua dagoen bitartean ez daukat gogorik.

Gaztelera ikastea zaila egin al zitzaizun?

Ez gehiegi. Euskara ikastera ere joan nintzen, baina oso zaila iruditzen zait. Orain umeak ari dira ikastolan beraz egunen batean agian erakutsiko didate edo ikasiko dut.



Saharar errefuxiatuen kanpamentuetatik etorri berria den Gorka Lasa, herrian sei urte daraman Ailem sahararrarekin.

Gorka Lasa Sahararren laguna

“Segurtasuna estutu egin da”

Egoera aldatu egin da kooperanteak bahitu zituztenetik

Gorka Lasa herritarra Saharan egon da ekainean, batetik oporak pasatzera Euskal Herrira etortzen diren umeen egitasmoan laguntzen eta bestetik Tolosa Sahararekin elkarteak han eskola bat eraikitzeko bideratu duen proiektua ezagutzen. Duela hamar urtetik hona Euskal Fondoak eta Polisarioak bultzatzen duten egitasmoari esker 380 ume etorri dira Euskal Herrira uztaila eta abuztua hemen pasatzeko.

Umeekin etorri zara hegazkinnez, nola zetozen?

Oso pozik. Bost urtean etortzen dira, 7tik 12 urtetara bitartean eta lehen bidaia dutenak, galdu xamarrek, negarrez... Amaren falta botatzen dute eta gaizki pasatzen dute, baina gainontzeko guztiak oso ondo, irrikitan egoten dira etortzeko.

Esperientzia oso polita dela uste dut. Askoren galdera izaten da, ea merezi ote duen handik hona bi hilabetetarako ekarteak: hemen dena ematen zaie eta gero bueltan ez dauka ezer, baina nire ustez merezi du, alde batetik gauza asko ikusten eta ikasten dituzte, badakite beraien herrialdetik kanpo zer dagoen, ezagutzen dute Euskal Herriaren egoera ere, eta bestalde sendagilearengana ere joaten dira, azterketa bat egiten zaie eta euren gabeziak zerbait konpontzen dira...

Egona zara Saharako maratoin, nola topatu duzu hura?

Otsailean edo ekainean joan, ez dauka zer ikusirik. Otsailean jada kexatu egiten gara bero egiten duelako, ba pentsa ekainean. 50 gradu ziren egunez, eta temperatura ez da 30 gradutik jaisten gauzez.

Bestalde, egoera aldatu egin da, orain arte kanpamentuetan gure kontura ibiltzen ginen, ez geneukan arazorik batera edo bestera joateko, baina urriaren kooperanteen bahiketarako gertatu zirenetik, Polisarioak beste segurtasun neurri batzuk hartu ditu: txoferra jartzen ziguten eta bizkartzainekin ibili gara. Dena den, normala iruditzen zait lehenengo askatasun hori galtzea.

Nola ikusten dute han egoera?

Gogorra, ez da pauso handirik ematen. Nik lau urte daramat joaten eta beti itxaropenez daude, baina itxaropen horri eusteko edo emaitzak lortzeko lan gutxi egiten da, nire ustez.

Jendeak beste zerbait nahi du baina, kanpotik herrialdeek presioa egiten diote eta pausak ematea ez da erraza. 37 urte daramate eta denbora pasatzen ari zaie. Kanpamentuak oso gauza probisional bezala jarri ziren, baina 37 urte eta gero oso asentatuta daude. Gero eta gehiago. Indar gehiago egin beharko litzateke.

Nazioarte mailan ere ez da babesik edo konponbiderik...

Ez da zaratarik ateratzen eta ahaztu egiten da gaia. Nik uste arazoetako bat hori dela, zarata gutxi egiten dela, mobilizazio edo iskanbila gehiago beharko litzateke. Baina eguna joan eta eguna etorri, ez badute ezer egiten, marokarrak oso lasai daude.

Sahara liberatuan egon zarete?

Saharak bi parte ditu, batetik Marokok okupatua duen zatia, eta bestetik Sahara liberatua. Hor Polisarioak agintzen du, Maroko eta Algeria ez dira sartzen, baina oso jende gutxi bizi da, nomada batzuek, eta kanpamentu txiki batzuek daude. Basamortu latza da, oso inguru minatu eta arriskutsua.

Uruti al dago?

Smarako kanpamentutik 800 bat kilometro ziren, egun oso bat joaten, eskolaren proiektua ikusi, bertako zuzendariarekin eta herriko alkatearekin egon eta buelta egin genuen.

Besterik?

Oporrak pasatzera etorri diren sahararren talde bat Donosti Cup txapelketa jokatzeko ari da. Han jokatzeko futboleko hain juxtu, Saharako ligaxkan bigarren geratu den taldeak Errealaren kamixetarekin.